ABESTIEN

LETRAK

kaixo@enekantak.org | www.enekantak.org
Facebook · Youtube · Instagram · Twitter · Spotify

LEHEN GIZAKIAK GARA

LETRA ETA MUSIKA:
Nerea Urbizu

LEHEN GIZAKIAK GARA (BAI)
INDARTSUAK ETA AUSARTAK GARA.
SUA DA GURE BABESA, (BAI!)
IPUINAK MAITE DITUGU.
LEHEN GIZAKIAK GARA, (BAI)
INDARTSUAK ETA AUSARTAK GARA
SUA DA GURE BABESA (BAI)
EZ GARA HAIN DESBERDINAK.

EGUNERO DA ABENTURA BAT
ARRISKUAK SAIHESTEN BADUGU NAHIKO LAN.
EGUNERO DA ABENTURA BAT
ERNE DITUGU BEGIAK.

TALDEAN IBILTZEN GARA, (BAI!)
BASOAN BARNA IBILTZEN GARA SEGURU.
EZ DUGU ORDUTEGIRIK, (EZ!)
EKIAK ESNATZEN GAITU
TALDEAN IBILTZEN GARA, (BAI!)
BASOAN BARNA IBILTZEN GARA SEGURU
EZ DUGU ORDUTEGIRIK (EZ!)
EZ GARA HAIN DESBERDINAK.

GAUA IRISTEAN IPUINAK ENTZUTEAK
MUNDUA ULERTZEN LAGUNTZEN DIT.

EGUNERO DA ABENTURA BAT
ARRISKUAK SAIHESTEN BADUGU NAHIKO LAN.
EGUNERO DA ABENTURA BAT
ERNE DITUGU BEGIAK (BERRIZ)

TXIKIEK

LETRA ETA MUSIKA:
Nerea Urbizu

E, O, U, A, I!

TXIKIEK HARAGIARI TXITXI
TXIKIEK URARI MAMA, MAMA!!
TXIKIEK TXOKOLATEARI KOKOLO
BAI, BAI, HIZTEGI FINA!

E, O, U, A, I!

TXIKIEK ERRETZEARI, XIXI!
TXIKIEK MUXUARI PA. PAAAAAA
TXIKIEK HAUR TXIKIEI NINI
BAI, BAI, HIZTEGI FINA!

E, O, U, A, I!

TXIKIEK KALEARI, APAPA
TXIKIEK MINARI PUPU, PUPU.
TXIKIEK LO EGITEARI ALOLO
BAI, BAI, HIZTEGI FINA!
BAI, BAI, HIZTEGI FINA!
BAI, BAI, ZZZZZZZZ

BISONTE MASTODONTE

LETRA ETA MUSIKA:
Nerea Urbizu

NOLA BIZIKO GINATEKE
HISTORIAURREAN BAGINA?
BASO ZABALA ANIMALIAZ
BETETA EGONGO OTE ZEN?

NOLA BIZIKO GINATEKE
HISTORIAURREAN BAGINA?
ANIMALIA IKARAGARRIZ
BETETA EGONGO OTE ZEN?

BISONTE MASTODONTE, ALAI TA KONTENT;
OREINA ADARRAK BANAN-BANAN KONTATZEN;
HARTZA KOBAZULOAN ETA MAMUUUUUUTA
TRONPA ILETSUA ORRAZTEN.

NOLA BIZIKO GINATEKE
HISTORIAURREAN BAGINA?
BASO ZABALA ANIMALIAZ
BETETA EGONGO OTE ZEN?

NOLA BIZIKO GINATEKE
HISTORIAURREAN BAGINA?
ANIMALIAK TA GIZAKIAK
MENDIAN ELKARREKIN BIZITZEN.

BISONTE MASTODONTE, ALAI TA KONTENT
OREINA ADARRAK BANAN-BANAN KONTATZEN
HARTZA KOBAZULOAN ETA MAMUUUUUTA

LETAGINAK ZORROZTEN. ... HARTZA KOBAZULOAN ETA MAMUUUUTA
LETAGINAK ZORROZTEN.

NOLA BIZIKO GINATEKE
HISTORIAURREAN BAGINA?
ANIMALIAK TA GIZAKIAK
MENDIAN ELKARREKIN BIZITZEN.

BISONTE MASTODONTE, ALAI TA KONTENT
OREINA ADARRAK BANAN-BANAN KONTATZEN
HARTZA KOBAZULOAN ETA MAMUUUUUTA
LETAGINAK GARBITZEN.

FRUITUAK BILTZERA

LETRA ETA MUSIKA:
Nerea Urbizu

FRUITUAK BILTZERA, FRUITUAK BILTZERA...

ZER JANGO DUGU GAURKOAN?
FRUITU ASKO DAGO HEMEN
ZAKUA_HARTU TA BAGOAZ
EA ZER HARTZEN DUGUN (BERRIZ)

KONTUZ ARANTZA HORIEKIN,
SASIEKIN
KONTUZ HOR IGOTA_ERE
EZ HARTU GEHIEGI ERE!

FRUITUAK BILTZERA, FRUITUAK BILTZERA
FRUITUAK BILTZERA, FRUITUAK BILTZERA...

ZER JANGO DUGU GAURKOAN?
FRUITU ASKO DAGO HEMEN
ZAKUA_HARTU TA BAGOAZ
ZER OTE DA NATURAN? (BERRIZ)

KONTUZ ARANTZA HORIEKIN,
SASIEKIN,
KONTUZ HOR IGOTA_ERE
EZ HARTU GEHIEGI ERE!

FRUITUAK BILTZERA, FRUITUAK BILTZERA
FRUITUAK BILTZERA, FRUITUAK BILTZERA

ZER JANGO DUGU GAURKOAN?
FRUITU ASKO DAGO HEMEN
ZAKUA_HARTU TA BAGOAZ
ZER OTE DA NATURAN?
ZER JANGO DUGU GAURKOAN?
FRUITU ASKO DAGO HEMEN
ZAKUA_HARTU TA BAGOAZ
EA ZER HARTZEN DUGUN.

KONTUZ ARANTZA HORIEKIN,
SASIEKIN
KONTUZ HOR IGOTA_ERE
EZ HARTU GEHIEGI ERE! (BERRIZ)
EZ HARTU GEHIEGI ERE!

MAITA DEZAGUN SUA

LETRA ETA MUSIKA:
Nerea Urbizu

ARGITASUNA, BIZITZA, BEROA
SUAREKIN DAUKAGUNA.
EGIN DEZAGUN DANTZA BERE INGURUAN
MANTEN DEZAGUN PIZTUTA!!
SUA, SUA, SUA, SUA.
SUA, SUA, SUA, SUA.
SUA, SUA, SUA, SUA.

ARGITASUNA, BIZITZA, BEROA
SUAREKIN DAUKAGUNA.
EGIN DEZAGUN DANTZA BERE INGURUAN
MAITA DEZAGUN, BAI, SUA!

SUA, SUA. SUA, SUA.
SUA, SUA. SUA, SUA.

ARGITASUNA, BIZITZA, BEROA
SUAREKIN DAUKAGUNA.
EGIN DEZAGUN DANTZA BERE INGURUAN
MANTEN DEZAGUN PIZTUTA!!

SUA, SUA. SUA, SUA. SUA, SUA.

FRUTA-ARBOLAK

LETRA ETA MUSIKA:
Nerea Urbizu

ABESLARIA:
Nahia Sillero

SAGARRA!!
SAGAR BAT NAHI DUT, GORRI-GORRIA
SAGARRONDOKO SAGAR GORRI BAT!
SAGARRA NAHI DUT, GORRI-GORRIA,
SAGARRONDOKOA!

SAGAR BAT, SAGAR BAT, SAGARRONDOKOA.
KOLORE TA ZAPORE BIZIAK GURE ZUHAITZETAN!

UDAREA!!
UDARE BAT NAHI DUT, BERDE-BERDEA,
UDAREONDOKO UDARE BERDE BAT!
UDARE BAT NAHI DUT, BERDE-BERDEA,
UDAREONDOKOA!

UDARE BAT, UDARE BAT, UDAREONDOKOA.
KOLORE TA ZAPORE BIZIAK GURE ZUHAITZETAN!

PIKUA!!
PIKU BAT NAHI DUT, MORE-MOREA,
PIKONDOKO PIKU MORE BAT!
PIKU BAT NAHI DUT, MORE-MOREA,
PIKONDOKOA!

PIKU BAT, PIKU BAT, PIKONDOKOA.
KOLORE TA ZAPORE BIZIAK GURE ZUHAITZETAN!

ARANA!!
ARAN BAT NAHI DUT, HORI-HORIA,
ARANONDOKO ARAN HORI BAT!
ARAN BAT NAHI DUT, HORI-HORIA,
ARANONDOKOA!

ARAN BAT, ARAN BAT, ARANONDOKOA.
KOLORE TA ZAPORE BIZIAK GURE ZUHAITZETAN.

NON DUZU MIN?

LETRA ETA MUSIKA:
Nerea Urbizu

ABESLARIA:
Claudia Rodriguez (Goshuan Saltsa)

-SENDALARI, EMAGIN,
ERAGIN, EKIN, SORGIN:
MINA DUT GORPUTZEAN ETA
EZ DAKIT ZER EGIN.

-NON EMATEN DIZU MIN?
ZENBAT NEGAR SAMIN!
NON EMATEN DIZU MIN? ESAN,
NAHIKO NUKE JAKIN!

-JAR EZAZU ARRETA:
BATZUETAN KOPETAN,
BESTEETAN BESOETAN
ETA OHEAN LOTAN...

-ARMAIRU HANDI HARTAN
BADUT UKENDU BAT,
ETA AHO BARRUAN
SENDATZEN DUTEN HITZAK,
BI BESOOTAN BERRIZ
SENTITZEN DUTEN HATZAK,
TA GANBARAN GORDETA
APOAREN ADATSA. (BERRIZ)

-SENDALARI, EMAGIN,
ERAGIN, EKIN, SORGIN:
MINA DUT GORPUTZEAN ETA
EZ DAKIT ZER EGIN.

-NON EMATEN DIZU MIN?
ZENBAT NEGAR SAMIN!
NON EMATEN DIZU MIN? ESAN,
NAHIKO NUKE JAKIN!

-JAR EZAZU ARRETA:
BATZUETAN KOPETAN,
BESTEETAN BESOETAN
ETA OHEAN LOTAN...

-ARMAIRU HANDI HARTAN
BADUT UKENDU BAT,
ETA AHO BARRUAN
SENDATZEN DUTEN HITZAK,
BI BESOOTAN BERRIZ
SENTITZEN DUTEN HATZAK,
TA GANBARAN GORDETA
APOAREN ADATSA. (BERRIZ)

ITSASOA

LETRA ETA MUSIKA:
Nerea Urbizu

ABESLARIA:
Aitor Garcia

AURREZ AURRE ITSASOA
OLATUAK GERTU, OLATUAK URRUN.
AURREZ AURRE ITSASOA,
JOLASTERA GOAZ!!
SALTO-SALTOKA, OLATU TXIKIETAN,
OLATU TXIKIETAN NABIL SALTOKA.
SALTO-SALTOKA, BUSTI-BUSTITA...
GOAZEN ORAIN LEHORTZERA.

AURREZ AURRE ITSASOA,
OLATUAK GERTU, OLATUAK URRUN.
AURREZ AURRE ITSASOA,
JOLASTERA GOAZ!!
SALTO-SALTOKA, OLATU HANDIETAN,
OLATU HANDIETAN NABIL SALTOKA.
SALTO-SALTOKA, BUSTI-BUSTITA...
GOAZEN ORAIN LEHORTZERA.

MAREA BEHERA... ITSASOA BARE.
MAREA GORA... ITSASOA GERTU!

SALTO-SALTOKA, OLATU TXIKIETAN,
OLATU TXIKIETAN NABIL SALTOKA.
SALTO-SALTOKA, BUSTI-BUSTITA...
GOAZEN ORAIN LEHORTZERA.

SALTO-SALTOKA, OLATU HANDIETAN,
OLATU HANDIETAN NABIL SALTOKA.
SALTO-SALTOKA, BUSTI-BUSTITA...
GOAZEN ORAIN LEHORTZERA.
GOAZEN ORAIN LEHORTZERA.

ZE ASTUNAK DIREN

LETRA ETA MUSIKA:
Nerea Urbizu

ABESLARIA:
Iñigo Aranbarri

ZE ASTUNAK DIREN
EULITXO HAUEK,
ZE ASTUNAK DIREN,
EZ DIRA GELDITZEN! (berriz)

GOZO-GOZOA OMEN NAGO
ERABAT NI XURGATZEN!!!
HEGAN-HEGAN DABILTZANEAN
ALDIZ EZ DIRA ISILTZEN. ZZZZZZZ

ZE ASTUNAK DIREN
EULITXO HAUEK,
ZE ASTUNAK DIREN,
EZ DIRA GELDITZEN! (BERRIZ)

LEIHOA IREKIZ JOAN DIRA
ZE ONGI, HAU BAKEA!
SOFAN ESERI ETA HARA,
ETORRI DA BESTE BAT! ZZZZZZZ

ZE ASTUNAK DIREN
EULITXO HAUEK

ZE ASTUNAK DIREN
EULITXO HAUEK,
ZE ASTUNAK DIREN,
EZ DIRA GELDITZEN! (BERRIZ)

GOZO-GOZOA OMEN NAGO
ERABAT NI XURGATZEN!!!
HEGAN-HEGAN DABILTZANEAN
ALDIZ EZ DIRA ISILTZEN. ZZZZZZZ

ZE_ASTUNAK DIREN
EULITXO HAUEK,
ZE ASTUNAK DIREN, ZE ASTUNAK DIREN.
ZE ASTUNAK DIREN
EULITXO HAUEK,
ZE ASTUNAK DIREN, ZE ASTUNAK DIREN.

HOR DOA PIRATA

LETRA ETA MUSIKA:
Nerea Urbizu

ABESLARIA:
Lur Errekondo

HOR DOA PIRATA
BEGIAN TXAPLATA
GERRIAN EZPATA
HANKATXOAN LATA (BERRIZ).

BAINA ZERBAIT FALTA DU...

NON DUZU ZAPIA? TRAI, LAI, LAI, NIRE SAKELAN!

HOR DOA PIRATA
BEGIAN TXAPLATA
GERRIAN EZPATA
HANKATXOAN LATA (BERRIZ).

BAINA ZERBAIT FALTA DU...

NON DUZU LOROA? TRAI, LAI, LAI, BELA GAINEAN!

HOR DOA PIRATA
BEGIAN TXAPLATA
GERRIAN EZPATA
HANKATXOAN LATA (BERRIZ).

BAINA ZERBAIT FALTA DU...

NON DUZU KATALOXA? TRAI, LAI, LAI, KAMAROTEAN!

HOR DOA PIRATA
BEGIAN TXAPLATA
GERRIAN EZPATA
HANKATXOAN LATA (BERRIZ).

BAINA ZERBAIT FALTA DU...

NON DUZU ALTXORRA? JAI, JAI, JAI! ONGI GORDETA!!

ASPERTZEN BAZARA

LETRA ETA MUSIKA:
Nerea Urbizu

ABESLARIA:
Odei Barroso

ASPERTZEN BAZARA, EGIN BARRE, ALGARA
EGIN BARRE ALGARA, EURIA BARRA-BARRA
EURIA BARRA-BARRA, XABOIAZ APARRA
APARRA, APARRA, APARRA... GARBITU KALPARRA.

ASPERTZEN BAZARA, EGIN BARRE, ALGARA
EGIN BARRE ALGARA, ELURRA MARA-MARA
ELURRA MARA-MARA, HANKAZ GORA GANBARA
GANBARA, GANBARA, GANBARA... PLAZARA DANTZARA.

ASPERTZEN BAZARA, EGIN BARRE -ALGARA
EGIN BARRE ALGARA, NEGU HOTSA KARRIKAN
NEGU HOTSA KARRIKAN, ESKU HOTZAK PATRIKAN,
PATRIKAN, PATRIKAN, PATRIKAN... ZALDIAK HIPIKAN

ASPERTZEN BAZARA, EGIN BARRE ALGARA,
EGIN BARRE ALGARA, JENDE HOTSA KARRIKAN

ASPERTZEN BAZARA, EGIN BARRE ALGARA,
EGIN BARRE ALGARA, JENDE HOTSA KARRIKAN,
JENDE HOTSA KARRIKAN, HAIZEZ BETE PUXIKA,
PUXIKA, PUXIKA, PUXIKA... ASPERTZEA UTIKAN!

ZERBAIT GALDU DA

LETRA ETA MUSIKA:
Nerea Urbizu

ABESLARIA:
Tomas Lizarazu

ZERBAIT GALDU DA GURE IKASGELAN
LAGUNAREN MARGO KUTUNENA!
BILA DEZAGUN GURE IKASGELAN,
DETEKTIBEAK IZANGO GARA!

BEGIAK ERNE, TA ESKUAK PREST:
TXOKO GUZTIAK MIATZERA!
AURKITUKO DUGU ALTXORRA DENON ARTEAN,
LAGUNA LAGUNTZEKO.

ZERBAIT GALDU DA GURE IKASGELAN
LAGUNAREN GOMA KUTUNENA!
BILA DEZAGUN GURE IKASGELAN,
DETEKTIBEAK IZANGO GARA!

BEGIAK ERNE, TA ESKUAK PREST:
TXOKO GUZTIAK MIATZERA!
AURKITUKO DUGU ALTXORRA DENON ARTEAN,
LAGUNA LAGUNTZEKO.

ZERBAIT GALDU DA GURE IKASGELAN
LAGUNAREN MARGO KUTUNENA!
BILA DEZAGUN GURE IKASGELAN,
DETEKTIBEAK IZANGO GARA!

...LAGUNA LAGUNTZEKO.

LARALARALA, LARALARALA,
LARALARALA, LARALARALAA,
BILA DEZAGUN GURE IKASGELAN,
DETEKTIBEAK IZANGO GARA! (BERRIZ)

SUPER SAGUZARRA

LETRA ETA MUSIKA:
Nerea Urbizu

ABESLARIA:
Kike Amonarriz

HEGAN NABIL GAUA IRISTEAN
ILUNTZEAN HASTEN BAITA FESTA
ERNE EGON ETA IKUSIKO NAUZU,
HORIXE NAIZ, SUPER SAGUZARRA!

BURUZ BEHERA EGITEN DUT LO
HEGALEKIN ESTALITA.
BURUZ BEHERA EGITEN DUT LO,
EZ NAIZ ERORTZEN, OE, OE!

HEGAN NABIL GAUA IRISTEAN
ILUNTZEAN HASTEN BAITA FESTA
ERNE EGON ETA IKUSIKO NAUZU,
HORIXE NAIZ, SUPER SAGUZARRA!

GAU EPELETAN EHIZTARI FINA
XOMORRO HARRAPATZAILE
GAU EPELETAN EHIZTARI FINA,
HARRAPAEZINA, OE, OE!

HORIXE NAIZ, SUPER SAGUZARRA!

BURUZ BEHERA EGITEN DUT LO
HEGALEKIN ESTALITA.
BURUZ BEHERA EGITEN DUT LO,
EZ NAIZ ERORTZEN, OE, OE!

HEGAN NABIL GAUA IRISTEAN
ILUNTZEAN HASTEN BAITA FESTA
ERNE EGON ETA IKUSIKO NAUZU,
HORIXE NAIZ, SUPER SAGUZARRA!

ZEIN ZABALA DEN

LETRA ETA MUSIKA:
Nerea Urbizu

ABESLARIA:
Beñat Gaztelumendi

ZEIN ZABALA DEN, ZEIN ANITZA DEN
GURE HERRIALDEA.
ZEIN ZABALA DEN, ZEIN ANITZA DEN
GURE BEGIEK JASOTZEN DUTENA.

ARTAZUKO MAHASTIEN ARTEAN IGARO DUT GAUA.
IRURTZUNDIK SAKANA ZEHARKATUZ MARKITOS AGURTU DUT,
IZKI PARKEAN MERIENDA HARTUTA EZAGUTU DUT GASTEIZ (GASTEIZ!).
NERBIOI IBAIAREN ITURBURUTIK BANOA BIZKAIA ALDERA.

ZEIN ZABALA DEN, ZEIN ANITZA DEN
GURE HERRIALDEA.
ZEIN ZABALA DEN, ZEIN ANITZA DEN
GURE BEGIEK JASOTZEN DUTENA.

LARRABETZUKO LAGUNAK AGURTU TA LAGAN BAINATU (BAINATU!).
DURANGOKO LIBURU BAT SOINEAN TXINDOKI IGOKO DUT!
ZEGAMATIK AIZKORRI BEGIETAN, KOSTALDERA GERTURATUZ,
KANTAURI ITSASOA AURREAN, LAPURDIRANTZ JOKO DUT.

ZEIN POLITA DEN, ZEIN ANITZA DEN
GURE BEGIEK JASOTZEN DUTENA.

KANBON ERROBI TA EGUR GORRIA, BANKAN BARAZKI BERDEAK.
SOHÜTAKO ESPARTZINEKIN BERRIZ OINEZ HASTEKO PREST NAIZ.
AINARIAK BEZALA BANOA SANTA GRAZITIK BARDEETARANTZ.
ANIZTASUNA ETA EDERTASUNA, GURE LURRAK ESKAINTZEN DIGUNA!!

ZEIN ZABALA DEN, ZEIN ANITZA DEN...

ZEIN ZABALA DEN, ZEIN ANITZA DEN
GURE BEGIEK JASOTZEN DUTENA.

ZEIN ZABALA DEN, ZEIN ANITZA DEN
GURE HERRIALDEA.
ZEIN ZABALA DEN, ZEIN ANITZA DEN
GURE BEGIEK JASOTZEN DUTENA.